Itzultzailea: Koldo Biguri

Barcelona: Destino, 2013

ISBN 978-84-08-05559-4



Susperregi, Xabier

Sahara eta Paslestinako ipuinak

Itzultzailea: Garlo itzulpen zerbitzua

Ilustratzailea: Andoni Odriozola

Oiartzun: Oiartzungo udala, 2013

ISBN 978-84-88917-39-3

Valverde Tejedor, Mikel

Rita eta alkimistaren ametsa

Itzultzailea: Ramon Olasagasti Aiestaran

Donostia: Elkar, 2013 (Rita; 9)

ISBN 978-84-9027-070-7

12 urtetik aurrera

Baccalario, Pierdomenico

Baronesa kutxa barruan

Itzultzailea: Aitor Arana

Bilbao: Mezulari, 2013 (Voltaire kaleko abenturak; 5)

ISBN 978-84-271-3465-2

Casanova, Antonio

Nasha Blaze eta mundu sekretua

Ilustratzailea: Samuele Maggi

Itzultzailea: Aitor Arana

Bilbao: Mezulari, 2013 (Ilusionista; 1)

ISBN: 978-84-271-3511-6

Egaña, Arrate

Simon ipuinen munduan

Ilustratzailea: Iñaki G. Holgado

Donostia: Elkar, 2013 (Xaguxar; 198)

ISBN: 978-84-9027-115-5

Fernandez Mendia, Oihane

Labarreko itsasargia

Ilustratzailea: Alex Orbe

Donostia: Elkar, 2013 (Xaguxar; 192)

ISBN 978-84-9027-079-0

Grahame, Kenneth

Haizea sahats artean

Ilustratzailea: Elen Odriozola

Itzultzailea: Miren Arratibel

Donostia: Erein, 2013 (klis-klasikoak)

ISBN 978-84-9746-856-5



Valverde, Mikel

Begia begi truk

Itzultzailea: Julen Gabiria

Bilbo: Giltza, 2013 (Skaterrak; 3)

ISBN 978-84-8378-271-2

Valverde, Mikel

Ertzean

Itzultzailea: Julen Gabiria

Bilbo: Giltza, 2013 (Skaterrak; 1)

ISBN 978-84-8378-269-9

Valverde, Mikel

Iraganik gabeko gizona

Itzultzailea: Julen Gabiria

Bilbo: Giltza, 2013 (Skaterrak; 2)

ISBN 978-84-8378-270-5

14 urtetik aurrera

Andueza, John

Kankaleko misterioa

Donostia: Elkar, 2013 (Taupadak)

ISBN: 978-84-9027-080-6

Arana, Aitor

Maitasun sua

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2013 (Ekin; 40)

ISBN: 978-84-8394-787-6

De Pedro, Jokin

Etsai gordea

Donostia: Elkar, 2013 (Taupadak; 40)

ISBN: 978-84-9027-081-3

Linazasoro, Karlos

A zer lau elementu!

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Iruñea: Pamiela, 2013 (Gazte literatura; 19)

ISBN: 978-84-7681-812-1

Riordan, Rick

Sugearen itzala

Itzultzailea: Koro Navarro

Bilbo: Mezulari, 2013 (Kanetarren kronikak; 3)

ISBN 978-84-271-3335-8



16 urtetik aurrera

Terzi, Marinella

Gezurrezko natura hila

Itzultzailea: Joxe Antonio Sarasola

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2013 (Ameslari; 22)

ISBN 978-84-8394-784-5

Liburu oso gomendagarriak

2 urtetik aurrera

Rosen, Michael

Hartza ehizatzeraz goaz

Ilustratzailea: Helen Oxenbury

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2013

ISBN 978-84-7681-735-3

We're Going on a Bear Hunt Michael Rosenek eta Helen Oxenburyk 1989. urtean argitaratu zuten liburu zoragarria da. *We're going on a bear hunt, we're going to catch a big one, what a beautiful day, we're not scared (Hartza ehizatzeraz goaz. Handi bat harrapatzeko irrikaz. Hau egun ederra! Ez goaz ikaraz)* haurrentzako abestian oinarrituz obra bikain bat egin zuten, zeina, denborarekin, klasiko bihurtu baita haur literatura unibertsalean.

Aita bat, haren seme-alabak eta txakurra abentura zirrargarri batean murgilduko dira, hartze-ehizan abiatzen direnean. Bidean, hainbat oztopo aurkitzen dituzte (belardia, lokatza, ibaia, basoa, elur-ekaitz zirimolatsua) eta denak zeharkatu beharko dituzte hartzaren leizera joateko, haren kobazulora heldu arte. Eta, ikaratuta, buelta eman eta atzera bide bera egin beharko dute, korrika, hartza atzetik dutela: elur-ekaitza, basoa, ibaia, lokatza, belardia eta etxea; eta han, ohe goxoa.

Egitura klasikoa duen ipuin kateatu bat da, eta bat egiten du haurren munduarekin. Familia, abenturan aurrera egin ahala, leloa errepikatuz doa, eta oztopo bakoitzaren aurrean (ibaia, ekaitza...) onomatopeia bat erabiliz erantzuten dute: fu eta fi, zirrun-zarran, plisti-plasta...



Helen Oxenbury ilustratzaileak bat egiten du narrazioaren tonu eta estiloarekin. Ilustrazioek indar handia hartzen dute ipuinean: zuri-beltzean eta arkatzez eginda daude familiak aurrera egiten duenean, eta koloretako akuarelaz, oztopoa gainditzera doazenean. Hala, koloreen aukeraketa liburuaren erritmoarekin lotuta agertzen zaigu. Poetak eta ilustratzaileak bat egin dute, eta haien arteko sintoniak obra bikain bat eskaini digu.

Ipuin ederra, ozen irakurtzeko eta hurrekin batera momentu alai batez gozatzeko.

Tullet, Hervé

Liburu bat

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Ttarttalo, 2012

ISBN 978-84-9843-418-7

Hervet Tullet marrazkilari frantziarra apustu arriskutsu eta aldi berean berritzaile batekin etorri zaigu oraingoan.

Koloretako biribilak erabiltzen ditu irakurlearen arreta eta partaidetza eskatzeko. Orriz orri, kolorez, tamainaz eta lekuz aldatzen dira biribilak, baina, hori gerta dadin, biribilak ukitu, igurtzi edo astindu egin behar ditu irakurleak. Orriak pasatu ahala irakurlearen irrika eta jakin-mina handituz joango dira.

Jolas egiteko liburu bat da. Helduak irakurri ahala, entzuten duena egin behar du haurrak, eta, beraz, ezinbestekoak dira bien arteko laguntza eta konplizitatea.

Magia, koloreak, ezusteak, jolasak, zirrarak eta emozioak aurkitu nahi baditugu, Tulleten narrazio honek aukera paregabea eskaintzen digu. Aldi berean, umearen ezagutzaren garapenean lagungarri izango zaie guraso eta hezitzaileei.

Ezohiko liburu bat da, eta guztiz jostagarria irudituko zaigu, bai guri, helduoi, baita hurrei ere.

Lionni, Leo

Urdin Txiki eta Hori Txiki: Pippo eta Ann eta beste ume guztientzako istorioa

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Pontevedra: Kalandraka; Iruñea:Pamiela, 2013

ISBN 978-84-7681-761-2

Leo Lionniren lehen ipuina 1959an kaleratu zen, Estatu Batuetan, eta haustura ekarri zuen haur literaturaren historian. Pintore, eskultore, ilustratzaile eta idazle ez ezik, diseinatzaile grafiko ere bazen Lionni. Oso nabarmena da hori haren obra guztian, baina bereziki liburu honetan. Liburu asko argitaratu ditu Lionnik, kalitate handikoak denak, baina ez du inoiz egin liburu honen pareko proposamen ausart eta berritzaileerik. Askoren ustez, Lionniren lanik onena da, soiltasuna eta harmonia artelanaren mailara eramana.

Kontatzen digun istorioa oso sinplea da. Urdin eta Hori izeneko bi orban txikiren gorabeherak ditu ardatz. Lagun minak direnez, elkarrekin jolasten dira, batera joaten dira eskolara, beren aita-amekin bizi dira eta lagun pilo bat dute. Besarkada batean elkartzen diren egunean hasten



da korapiloa, bien baturatik orban berde bat sortzen dutenean. Ez zaie axola, oso gustura sentitzen dira, baina gurasoek ez diete harrera onik egiten, ez baitute berde txikia ezagutzen. Zirriborro koloredunekin kontatutako istorio hau simple bezain adierazkorra dugu. Adiskidetasunaren eta aniztasunaren metafora eder bat da, eta ezberdintasunak onartzeko eta maitatzeko bidea erakusten digu.

Lehen-lehenik, baina, gozamen estetikoa da liburu hau. Teknika abstraktua eta collagea erabiliz, idazleak sekulako indar narratiboa ematen dio istorioari. Paper zatitxoak eta kolorez lagunduta, irudikatzen ditu etxeak, mendiak, eskola, tunelak eta abar. Halako bitarteko xumeak erabiliz, adin guztietako irakurleek berehala identifikatuko dituzte pertsonaiak eta beren sentimenduak: poza, tristura, harridura. Dudarik gabe, maisulan baten aurrean gaude.

Ez izan zalantzarik liburu hau zuen kuttunen artean sartzeko. Diseinuaren arloan klasiko bihurtu da. Berrogeita hamar urte geroago, *Urdin Txiki eta Hori Txiki* oraindik ere modernoa, iradokitzailea eta erakargarria da.

4 urtetik aurrera

Browne, Anthony

Basoan barrena

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Pontevedra: Kalandraka; Iruñea: Pamiela, 2013

ISBN 978-84-7681-798-8

Basoan barrena albumeko protagonista mutiko bat da, eta, istorioa hasteaz bat, Txanogorritxorekin identifikatzen dugu: aita ez dago etxean, amak gaixorik dagoen amamarengana bidaltzen du opil batekin, eta, ipuin klasikoetan bezala, bide laburra eta luzearen artean aukeratu beharko du protagonistak.

Anthony Brownekin batera, irakurleak ere misterioz betetako baso batean bidaia ahaztezin bat egingo du. Ipuin klasikoaren aztarnez betetako baso bat da, non, Txanogorritxoak gain, beste pertsonaia batzuekin egingo baitu topo: Jon eta babarrun magikoak, Ilurre Kizkur eta hiru hartzak, Rapunzel, Loti Ederra, Hansel eta Gretel, Marierrauskin eta abar. Baso hartan, ordea, ezer ez da dirudien bezalakoa. Istorioan sartzean, norberak, lehendik dakienaren arabera, aipatutako ipuin klasikoetako pertsonaiak ezagutuko ditu.

Bestalde, irudietako koloreak desagertu egiten dira basoan sartzekoan, leku ezezagun eta arriskutsu horretan zuri-beltza nagusitzen delako. Protagonistak eta beroki gorriak bakarrik mantentzen dituzte hasierako koloreak.

Gainera, Txanogorritxoren ipuinarekin paralelismo bat erabiltzen da suspensea mantentzeko, otsoa noiz agertuko zain.



Liburu eder hau lehen pertsonan kontatuta dago, eta horrek protagonista sentiarazten du irakurlea, mutikoaren beldurrak eta kezkek norberak ere senti baititzake.

Lehen aldiz 2004. urtean argitaratu zen liburu hau euskaraz irakurtzeko aukera ematen digu orain Pamiela argitaletxeak, haur zein helduen gozamenerako.

Browne, Anthony

Osteratxo bat parkean

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Pontevedra: Kalandraka; Iruñea: Pamiela, 2013

ISBN 978-84-7681-771-1

Goiz batean, Iriarte jauna eta haren alaba Argi, Fernando txakurra hartuta, paseatzera irten ziren parkera. Goiz hartan bertan, Uriarte andrea eta haren seme Pintto, Isabel txakurra hartuta, leku berera joan ziren paseatzera.

Narrazio honetan bi istorio paralelo daude; alde batetik, helduen jokabidea erakusten duena, eta, bestetik, haur eta txakurrena. Helduek, haurren gurasoek, parkean dauden denbora guztian ez dute bestea aintzat hartzen, ez diote elkarri jaramonik egiten, bestea ikusezina balitz bezala. Nabarmena da bien arteko inkomunikazioa, agian bi familien maila sozio-ekonomikoen arteko aldeak areagotua.

Haurrek, berriz, estereotipoetatik salbu, naturaltasunez jokatzeko dute, eta ezagutu eta denbora gutxira harreman bat sortzeko dute; lehenengo, elkar begiratu; ondoren, hurbilduz; gero, hitz eginez, eta, jarraian, jolastera joanez. Jokabide libre horren eragile, umeek mugitzeko, esperimendatzeko eta disfrutatzeko duten beharra. Animaliak, berriz, guztiz espontaneoak dira, eta elkarrekin izan bezain laster hasten dute harremana.

Album honetan agertzen den sinbologiak arreta berezia merezi du. Alde batetik, parkean kokaturiko ilustrazioak, kontakizuna islatzen duten irudiez gain, istorioarekin zerikusirik ez duten xehetasunez beteta daude: ipuin klasikoetako hainbat pertsonaia, enbor bereziak, giza itxurako bankuen hankak... Aipatzekoak, baita ere, lorezainaren kapela eta ahotik ihesi doakion hortzeria.

Bestetik, irudi luke haurren izenak eta txakurrenak trukaturik daudela, hau da, gure gizartean ohikoak diren pertsona-izenak jarri dizkiete txakurrei, eta alderantziz...

Generoei esleitzen zaizkien roletan ere aldaketa nabarmenak agertzen dira umeen kasuan: neska ausarta eta mutil beldurtia... ez da hala, ordea, helduen munduan.



Interpretazioa irakurleen esku uzten ote du idazleak, ala mezu garbi baten bila ote dabil?

Aukera ederra dugu Anthony Brownen beste obra bat euskaraz irakurtzeko. Dakigunez, itzal handiko autore ingeles hori klasiko bihurtu da haur literaturan, eta, merezimendu osoz, sari garrantzitsuak jaso ditu, bereziki Hans Christian Andersen Saria bere obra osoagatik. Aipagarria da bere lanetan egiten duen ahalegina testua, irudiak eta lengoia plastikoa elkarren artean erlazionatzeko.

Lionni, Leo

Matiasen ametsa

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2013

ISBN 978-84-7681-755-1

Badira liburu gutxi batzuk *long-seller* bilakatzen direnak, hau da, urteetan zehar behin eta berriz berrargitaratzen diren liburuak, horrenbestez hainbat belaunalditako irakurleengana iristen direnak. Leo Lionniren liburuak zalantzarik gabe maila horretan kokatu beharrekoak dira, eta azken urteetan, zorionez, euskal irakurleengana heltzen ari dira haren lanek ezagunenak (*Frederick, Igeritz, Urdin Txiki eta Hori Txiki*, adibidez).

Oraingoan, Lionniren beste liburu aipagarri bat heldu zaigu, *Matiasen ametsa* izenekoa.

“Eta zuk, zer izan nahi duzu handitan?”. Hurrei etengabe egiten zaien galdera horri erantzuten dio Leo Lionnik ipuin honetan. Matias saguari galdera hori egin ziotenean, ez zekien zer erantzun; berak, batez ere, mundua ikusi nahi zuela esaten zuen beti. Behin, museo batera joan zen gelakideekin, eta han egin zuen bere bizitzako aurkikuntza: artelan ugari ikusi ondoren, artista izan nahi zuela erabaki zuen.

Ilustrazioen bitartez, artearen historian zehar ibilaldi bat egingo dugu, eta hainbat margolaritza-estilo ezagutuko ditugu (inpresionismoa, fauvismoa, kubismoa...); baina, batez ere, artearekiko zaletasuna eta gustu estetikoak piztuko zaizkigu.

Gure ametsak betetzeak aske egiten gaitu. Kasu honetan, artearen laguntzarekin Matiasen bere ametsa lortuko du, eta gai izango da hasierako errealitate gordina aldatzeko. Lionnik amets artistikoa gauzatzeko mezua helarazten du liburu honen bidez, eta azpimarratzen du arteak eta sormenak bizitza alaitzen dutela.

Artista, diseinatzaile, ilustratzaile eta idazle handia izateaz gain, Leo Lionnik artearekiko zaletasun handia izan zuen bizitza osoan, eta, horren lekuko, gai horren inguruan haurrentzako idatzi zituen liburu paregabeak.



Velthuijs, Max

Bai ausarta dela igela

Itzultzailea: Elizegi, Patxi

Donostia: Ttarttalo, 2013

ISBN 978-84-9843-517-7

1989. urtean, Max Velthuijs ilustratzaile eta idazle holandarrak bere pertsonaiarik ospetsuena izango zena sortu zuen: Igela, fraka zuri-gorriekiko igel berdea.

Igelak, pertsonaia sinpatiko eta baikorrak, eta haren lagunek —Ahatea, Txerria, Erbia eta Arratoia—, Velthuijsen liburu arrakastatsu eta ezagunenak eratuko dituzte.

Egunak egin zituen euri-zaparrada atertu gabe. Ibaiak gainez egin zuen eta ura etxean sartu zitzaien Igela, Ahatea eta Txerriari. Erbiaren etxera joan behar izan zuten orduan. Han geratu ziren, isolatuta, janaria bukatu zen arte. Goseak amorratzen zeuden. Kanpoan, ur-korronteak indar handia zekarren oraindik, baina Igela, bere lagunak salbatzearren, laguntza bila irten zen, nahiz bizitza arriskuan jarri.

Velthuijsek, alegietan bezala, gizatiartutako animaliak erabiltzen ditu bere istorioak kontatzeko. Baina beti irtenbide zoriontsu eta baikorra ematen die arazoei.

Estilo soilean eta samurtasunez idatziz, adiskidetasunaz eta adoneaz hitz egiten digu liburu honetan. Velthuijsen ilustrazioek ezaugarri bereziak dituzte. Marra lodia erabiltzen du, eta kolore alaiak, bere pertsonaiak margotzeko.

Igelaren eta laguneren abenturek arrakasta handia izan dute, eta 50 hizkuntzatarara itzuli izan dira. Egile holandar honek hainbat sari jaso zituen, baita Hans Christian Andersen Ilustrazio Saria ere, 2004. urtean.

Ttarttalo argitaletxeak *Kotoizko hodeia* bilduman argitaratu zuen *Bai ausarta dela igela*, 1996an. Oraingoan, edizio berri eta dotore bat atera du Ttarttalok, Igelaren 25. urteurrena ospatzeko.

Aukera ezin hobea, Igelaren eta haren laguneren abentura batekin gozatzeko.



6 urtetik aurrera

Añorga Lopez, Pello

Augustoren botila

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Bilbo: Giltza, 2013 (Tren urdina)

ISBN 978-84-8378-192-0

Augusto dugu istorio txiki honetako protagonista. Botila bat ur erosi du, egarriak dago eta. Bidean abiatu bezain pronto, hainbat garraibide beharko ditu botila eramateko: motxila, bizikleta, autoa, kamioia... Augustoren bidaia, inora ez doan ibilaldia,

etengabeko gehitze bat izango da; baina, istripu baten ondorioz, hasierara itzuliko da, sinpletasunera, jatorrira. Hori bai, amaieran, guk ere ikasi beharko dugu ibiltzen, bizitzan aurrera egiten... eta ondorio nagusi batera iritsiko gara: gauza asko izateak edo pilatzeak ez gaituela zoriontsuago egiten.

Tradizio luzeko idazlea dugu Pello Añorga. Haur literaturaz luze gozatzeko parada eman duten horietakoa, 1983tik hona. Bizitzaren sekretuak irakurlearekin konpartitzen dakiena. Haren ipuin gehienak, narrazioak izanik, poesiatik hurbil daude. Sinbologiaz beteriko istorioak dira. Horrez gain, hitzen erritmoek eta egitura biribilek herri-ipuinen itxura ematen diote Añorgaren ipuin askori. Ahozko tradizioan oinarritutakoak dirudite, ozen irakurtzeko aproposak.

Jokin Mitxelenak egin ditu ilustrazioak. Bikote arrakastatsua eta sendoa osatzen dute, eta nabaria da bien arteko konplizitatea. Jokinek itxura bitxia duten pertsonaiak marrazten ditu. Umorea sumatzen da beti haren ilustrazioetan. Eta Añorgaren pisuzko gaiak (heriotza, bidea, bizitza, arima, ausardia, natura...), modernitatez josiz, gaur egungo gizartean kokatzea lortzen du.

Garrantzi handiko gaiak, era sinplean kontatuta, zuzen-zuzenean bihotzera heltzeko idatzitakoak. Horrelakoak dira Pelloren ipuinak. Ume edo heldu, bakarrik edo taldean, isilean edo ozen, baina beti altxor txikiak.

Olaso, Xabier

Tximeletrak

Azala: Agurtzane Villate

Iruñea: Pamiela, 2012 (Haur literatura 17)

ISBN 978-84-7681-758-2

Poesia gutxi irakurtzen dugu eskolan, poesia gutxi etxean, poesia gutxi kalean, baina poesia-egarri da bihotza. Eta poetak bere poema eskaintzen digunean, gure arimak negar egiten du,



edo barre, edo itzal-argiak ukitu eta bat egiten du minarekin edo pozarekin, eta misterio horretan murgildu... Bai, gizon-emakumeen eta haurren bihotzak poesia-egarri dira.

Horregatik, oso kontent hartu dugu Olasoren lana, jolasteko, edo tristura edo poza dastatzeko, edo belarriarekin edo hitzekin bromak egiteko aukera ematen digulako.

Eta oso ariketa ona da, gauerdian, edo eguerdian, edo arratsalde erdian, edo goizean goiz, poematxoa irakurri, ozenki irakurri haurrekin, hitzekin jolastu eta zentzumenak zabaldu. Dohainezko jarduna, ezer bilatzen ez duena, ezer eskatzen ez duena: entzun, esan, egon, disfrutatuz, sentitu, penatu, alaitu...; ezer egin gabe, soilik egon, irakurri eta entzun.

Sentsibiltate desberdinetako poemak dira: batzuk hitz-jolasak dira; beste batzuk poesia xarmantak; batzuk sinpleak eta zuzenak dira; beste batzuk, sinbolo sakonak. Irakurleak, haurra edo heldua izan, aukera du bere erritmo propioa hartzeko eta nahi beste gelditzeko nahi duen tituluari.

Irakurketa linealik ez dago, baina poesian are gutxiago, eta irakurleok edo entzuleok liburuan aurrera eta atzera egiteko askatasun guztia daukagu.

Ramos, Mario

Kili txikia

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Tarttalo, 2012

ISBN 978-84-9843-405-7

“Leo txikia zen, oso txikia, baina promes handiak zituen eginak”. Adjektibo kontrajarriz osaturiko esaldi horrek ematen dio hasiera ipuinari. Ondoan, trazu lodiekin, Leo dago, gertu, pozik eta esker ona azaltzen. Orria pasatu eta honela jarraitzen du testuak: “Baina denborak aurrera egin ahala, Leo aldatu egin zen”. Leok koroa darama eta mendi tontor baten gainean dago, urrun. Hitz gutxitan, irudia erabiliz, Leok pairatutako aldaketa antzeman daiteke, urrundu egin da, jada ez da ipuinaren hasieran deskribatzen zena.

Ipuinak aurrera egin ahala, gauza onik gertatuko ez ote den susmoa hartzen du irakurleak. Botere absolutuak Leo krudel bihurtuko duen arren, animalia guztiek goraiatzeko dute erregea, Kili txikiak izan ezik. Bera, erregearengana hurbildu eta inolako beldurrik gabe, absolutismoari aurre eginez, koroa kenduko dio errege krudelari.

Inork espero gabe, Kili txikia heroi bilakatu da. Txikia izan arren, indar fisikorik izan ez arren, bere printzipioei jarraituz, arras bidegabea den egoerari aurre egiten dio. Ez die men egingo erregearen abusuei, eta, besteak ez bezala, ez da geldirik geratuko.

Alegia honetan, boterearen ikurra den koroa buru batetik bestera doa. Ipuinean zehar, erritmoa eta tentsioa ez ezik, algara eragingo diguten txorakeria galantak bizi ahal izango ditugu, koroa janzten duten animalien enpatia ezak eta grina berekoiak hainbat egoera txoro sorraraziko baititu.



Ipuinean agertzen zaigun gatazkaren irtenbidea, gure eguneroko bizitzan gertatzen den legez, ez da erraza izango. Kilik gatazkaren une guztiak biziko ditu, baina bidean hazi egingo da, eta horrek gatazkari aurre egiteko indarra eta ausardia emango dizkio.

Mario Ramos, Portugaldarra jatorriz, Bruselan jaio zen. Diseinu grafikoa ikasi eta hainbat liburu argitaratu zituen. Euskarazko edizioa Ttartalo argitaletxeak kaleratu du. Eskuaratean daukaguna azken aurrekoa da.

Ramosek, istorio xume baten bidez, giza gatazka aztertzen eta azaltzen du, hots, gehiegizko botereak sorrarazten duen abusua. Era horretan, mundua hobeto ulertzen eta ezagutzen laguntzeaz gainera, pertsona hobeak izaten ere lagunduko digu. Hori guztia ondo uler dezagun, ezin hobeki erabiltzen ditu bi kodeak, testua eta irudiak.

Behin eta berriz irakurtzeko moduko ipuina dugu, benetan gomendagarria. Une entretenigarria eta dibertigarria pasatuko dugu istorio hau irakurtzen. Haurrek ez ezik, ondo legoke helduek ere ipuin hau irakurtzea. Gora Kili txikia!!

Mario Ramos 2012ko abenduan hil zen. Haren lanak ez daitezela falta haur liburutegietako apaletan.

8 urtetik aurrera

Dégruel, Yann

Saba eta landare magikoa

Itzultzailea: Ibon Plazaola Okariz

Donostia: Ttartalo, 2013

ISBN 978-84-9843-419-4

Abisinian (antzinako Etiopian) kokatzen da istorio hau. Ipuina ipuinaren barruan teknika erabiliz, kafe-landarearen aurkikuntzaren kondaira ezagutuko dugu. Esan bezala, istorioa bi mailatan kontatuta dago: batean, aiton zahar bat ipuin bat kontatzen ari da bere herrixkan, eta bestean, berriz, hark kontatzen duen ipuina entzuten eta ikusten dugu. Bi plano horiek tartekatuta egiten dira komiki osoan zehar, eta horrela ikuspegi osoa hartzen du irakurleak, batetik bestera saltoka doan bitartean.

Lehenengo planoan, haurrek adi entzuten dute aitonak kontatzen duen istorioa, eta etengabe moztzen diote, jakin-mina eta emozioa kontrolatu ezinik. Haurrek ipuina entzuterakoan ageri duten jarrera umorez kontatuta dago, eta irribarrea eragingo dio irakurleari.

Bigarren planoan, ahuntz baten bitartez Saba izeneko neskatila txikiak kafe-landarea aurkituko du mendi punta batean. Abenturaz betetako kondaira da honako hau, eta bertan kontzeptu



asko batzen dira: jakin-mina, arriskua, askatasuna, babesu, haserrea, munduarekiko irekitasuna.

Yann Dégruel idazle frantziarrak trebetasunez bildu ditu ahozketasunean ohikoak diren elementu unibertsal horiek, eta, zalantzarik gabe, erritmoa, mugimendua eta bizitasuna eman dio istorioari.

Komiki osoan nagusi da kolore marroia, eta horrek ezin hobeto irudikatzen du Abisiniako biztanleen larruzalaren kolorea, eta, batez ere, hango lur lehorrarena. Hala ere, lur haietan aurkitu zen gaur egun ere askorentzat magikoa den landarea: kafea.

Urruneko lurralde eta kondairak ezagutzeko aukera ederra.

Janosch

Altxor bat aurkitu dugu: hartz txikiak eta tigre txikiak Lurreko zoriona bilatu zutenekoa

Itzultzailea: Ainhoa Irazustabarrena Barriola

Iruñea: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2013

ISBN : 978-84-7681-765-0

Egun batean, Tigre txiki eta Hartz txiki Lurreko zorionik handienaren bila irten ziren etxetik. Hasieratik argi zeukaten benetako zoriona aberastasuna zela, eta, beraz, altxor baten bila hasi ziren. Haatik, aberastasuna al da, benetan, zorionik handiena? Galdera konplexu horri erantzuna emateko, bidaian zehar arrasto ugari aurkituko ditugu. Ikusiko dugu, adibidez, bidean topatuko dituzten animalien iritziak ez datozela bat: satorrak esango die entzumena dela zorionik handiena; lehoiak, berriz, kemena eta indarra. Baina gauzak askotan ez dira gertatzen uste bezala, alderantziz baizik, eta uste zutenean aberastasuna ez zutela inoiz aurkituko, urrezko sagarrak ematen zituen sagarrondo batekin egin zuten topo. Eta orduan hasi ziren benetako arazoak.

Badakigu diruaren atzean, askotan, zoriona beharrean zorigaitza aurkitzen dugula, eta hori da, hain zuzen ere, liburu honen baitan dagoen ideia nagusia. Sinpletasunez, baina aldi berean zorroztasunez, gizarteari kritika egiten dio idazleak (banketxeei, estatuari...) eta gogoratzen digu adiskidetasuna dela benetako aberastasuna eta zoriontasuna.

1979. urtean idatzi zuen Janosch idazle alemaniarrek haurrentzako ipuin hau. Urtebete lehenago fama eta arrakasta lortu zituen mundu osoan, *Zein polita den Panama* liburuarekin. Handik 30 urtera, ipuinok ez dute batere gaurkotasunik galdu, eta haur literaturaren historia modernoan merezi duten lekuan daude. Aprobetxa dezagun Pamiela-Kalandrakak ipuinok euskaraz irakurtzeko eskaintzen digun aukera ezin hobea.



10 urtetik aurrera

Barrenetxea, Iban

Zurginaren ipuina

Ilustrazioa: Estudi Miquel Puig

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Nafarroa: Txalaparta, 2013

ISBN:978-84-153-1364-9

Bazen behin zurgin langile eta fin bat: Firmin.

Hain fina eta ona zen Firmin bere lanean, ezen, Von Bonbus baroiak, gerran, galdu zuenean besoa, eta, ondoren, galdu zituenean zangoak, eta, ondoren, galdu zuenean burua, Firmin zurgin finari deitu baitzioten baroiaren ingurukoek (emazteak, boterearen ordezkariak eta zerbitzariak). Zertarako, eta galdutako atalen egurrezko ordezkioak egin zitzala erregutzeko. Eta halaxe egin zituen gure protagonistak beso, zango eta buru berriak baroiarentzat.

Kasu guztietan lan bikaina egin zuen, batez ere baroiak burua galdu zuenean, zalantzarik gabe lehengoa baino hobea jarri baitzion!

Egitura klasikoa eta errepikakorra duen narrazio bat da, non errepikatzen baitira egoerak, pertsonaiak eta haien diskurtsoak. Aldi berean, oso narrazio ironikoa eta kritikoa da, eta azken eszena irakurri besterik ez dugu, horretaz jabetzeko: baroi boteretsua harrizko estatua bihurturik, eta Firmin eta beti azkenengo lerroan zegoen neskamea zoriontsu, musikaren erritmoan paseatzen.

Liburuaren formatua oso zaindua da: paperaren kalitatea, ilustrazio tolestuak —batzuk ireki egiten dira eta tamaina handia hartzen dute—, kolorea, tapa gogorrak... Ilustrazioak, estilo zaharrekoak, liluragarriak dira.

Liburuak (jatorrizko bertsioan, *El cuento del carpintero*) 2011ko Kiriko saria eta 2012ko Gaztelaniazko Haur eta Gazte Literaturan Euskadi saria jaso zituen.



Lacombe, Benjamin

Swinging Christmas

Itzultzailea: Joxe Antonio Sarasola

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2013

ISBN: 978-84-8394-569-8

Robinek, bere ikarak eta aurreiritziak albo batera utzita, Bernard bakartia ezagutuko du Gabonen bezperan. Bien artean harreman estu eta hunkigarria sortuko da: liburuekiko eta musikarekiko maitasuna bihotzean iltzatuta geratuko zaio gure protagonista gaztetxoari.

Xehetasunez beteriko ilustrazio koloretsuz apaindurik dago liburu liluragarri hau, eta CD baten laguntzaz jazz musikaren doinu gazi-gozetan murgiltzeko aukera izango dugu. Robinekin batera, musikak sortzen duen zirrara berezia bizitzeko aukera izango dugu guk ere. Ezbairik gabe, istorioak beste dimentsio bat hartuko du, emozioak garatzeko bide ezin hobe bilakatuko baita; gure iritziz hori da, hain zuzen ere, ipuin musikatu honen bertute nagusietariko bat: musikaren bitartez emozioak igortzeko erakusten duen trebetasuna. Nork ez ditu bere bizitzako unerik hunkigarrienak melodia zirrargarriekin erlazionatzen? Benjamín Lacombe, Olivia Ruizen laguntzaz, lan bikaina burutu du, beste behin ere, guztion gozamenerako.

14 urtetik aurrera

Riordan, Rick

Munstroen itsasoa

Itzultzailea: Koro Navarro

Bilbo: Mezulari, 2013 (Percy Jackson & Olinpiarrek)

ISBN 978-84-271-3520-8

Tximistaren lapurra

ISBN 978-84-271-3520-8

Uztartu al daitezke greziar mitologia klasikoa eta gazteentzako abentura? Horixe da, hain zuzen ere, Rick Riordan estatubatuarrak eskaintzen digun nahasketa interesgarria. Percy Jackson dugu sail honen protagonista nagusia, eta hainbat antzekotasun ditu Harry Potterren pertsonaiarekin. Ez bata ez besteak ez dute beren jatorria ezagutzen, eta liskarretik liskarrera dabiltza beti. Ez dira heroi ohikoak, eta biek ere zintzotasuna eta lagunekiko leialtasuna lituzkeke bertute nagusi. Nolanahi ere, bi sail horien ildo nagusia fantasia eta magia izanik ere, greziar mitologian datza ezberdintasun nagusia, elementu horretaz baliaturik gorpuzten baitu egileak mundu fantastiko oso bat, izaki mitologikoak eta lurtarrak nahastuz. Abenturaz



beteriko irakurketa, erritmo bizikoa, uneoro abentura berrien egarriz utziko gaituena. Pertsonaiak ongi definituta daude, bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu, eta abentura batetik bestera haiekin identifikatzea lortuko dugu. Abentura eta mundu miragarriak gustuko dituen irakurleak aukera paregabea du euskaratu berri diren lehen bi liburu hauen irakurketan murgiltzeko.

Zerrenda berezia

Igerabide, Juan Kruz

Eguberria: ohitura, kantu eta istorio

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Donostia: Nerea, 2012

ISBN: 978-84-15042-55-6

Haur eta gazte literatura sailari dagokionez, album zoragarri honek jaso berri du Espainiako Kultura Ministerioaren 2013ko Edizio Sari Nazionala. Izan ere, hain da ederra darion ukitua eta hain dotorea edizioaren diseinua: orri sendo ukigarriz hornituak, testu eta ilustrazio finez landuak, espazio zuriak barne, irakurlearengan berebiziko giroa sortzen dutenak!

Nerea argitaletxeok lehengo ere jaso zuten sari hori, baina oraingoan askoz gehiago poztu dira, *Eguberria* baita haur literaturan izan duten lehen esperientzia. Haien esanetan adierazteko: *“Juan Kruz Igerabide eta Elena Odriozola sortzaile itzaltsuek, baterako lan honetan, Eguberria piztu egiten dute, eta Euskal Herriko tradizioak, mitoak, musikak eta aitzinako mundu bat eskaintzen dizkigute, bertan arbasoen mundu magikoa, natura eta Eguberriko erlijio-tradizioa uztartuz”*.

Izan ere, liburu honetan berreskuratzen dira Eguberrien inguruko euskal tradizioak, mitoak eta musikak: arbasoen mundu magikoa, natura eta erlijio-tradizioa uztartuta agertzen dira, antzinako kultur tradizio aberats baten oihartzun gisa.

Liburua bost ataletan banatuta dago. Solstizioari buruzko atala da lehena. Juan Kruz Igerabideren esanetan, “eguzki zaharra hiltzen eta eguzki berria jaiotzen denekoa”. Bigarren atalean urari buruzko kanta ageri dira, pentsamendu animistatik sortutakoak, erritoak, landare eta zuhaitzen ingurukoak... Hirugarren atalean, berriz, Olentzeroren pertsonaia ageri da, nola ez; laugarrenean, kristau-tradizioko kantu bilduma bat, eta bosgarren atalean, azkenik, Eguberri laiko baterako kantuak.



Liburuan aipagarriak dira Elena Odriozolaren ilustrazioak, girotze lan handia egiten baitute. Odriozolak, horretarako, gogoan hartzen ditu Jon Zabalo Ballarin *Txiki* ilustratzailearen marrazkiak, haren estetika inspirazio-gai harturik. Eta, bide batez, omenaldi xume bat egiten dio *Xabiartxo* euskarazko haur liburu klasikoari.

Liburua gazteleraz eta euskaraz argitaratu da, eta helduentzat zein adin guztietako umeentzat gomendatzen dugu.

Liburu aproposa izan daiteke neguan irakurtzeko, eguberriak elkarrekin bizi ditugularik, norberaren bihotz-ondoa xaramelatuz aspaldiko mundu zaharra zein gaurko mundu berria uztar ditzagun.

